

Hainbat IDEIA
ikasketa honi buruz:



GOGORA DEZAGUN:

- Gure esku hartzea erabatekoa izan dadin, kontuan hartu behar ditugu esku hartze hori ahalbidetuko diguten zenbait gorabehera:

Informazioa jasotzea: Oinarrizkoa da esku hartze prozesuari ekiteko.

Gure iritziak ematea: Esaten duguna kontuan hartu dela sentitu behar dugu, gure iritziak errespetatu egiten direla. Era horretara indartu egingo da gure autoestimua.

Gure ikuspegia azaltzea: galde diezagutela, proposa diezagutela; baina ez dezatela jakintzat eman, ez dezatela ezarri.

Irtenbideez berba egin, ikuspegiak alderatuz: Gogora dezagun esku hartze testuingurua askotariko testuingurua dela. Aurkako iritziak agertuko dira, agian, gatazka azaleratuko dutenak, baina isilpean utzi behar ez direnak. Gatazkak begirunea dakar baldin eta behar bezala jokatzen asmatzen badugu.

Erabakiak partekatu/onartu: Esku hartze prozesu arduratsuan, denon artean erabakitakoak partekatzeak eta onartzeak egiazko demokraziaz jarduteko aukera emango digu. Gainera, geureganatzen ditugun elkartasun eta justizia balioak benetan erabiltzeko modua izango dugu.

1. jarduera:

GIZARTEAN ESKU HARTZEN IKASTEN DUGU



IPUINA: "Etengabe igerian"

Itsas hondoa arraintxo talde bat bizi zen, alai. Den-denak ziren gorriak, bat izan ezik, beltza jaio zen eta. Gainera, beste arraintxoek baino azkarrago egiten zuen igeri. Felix zuen izena.

Behin batean arrain handi bat etorri eta, ahotzarra irekiz, hainbat eta hainbat arraintxo irentsi zituen. Felixek alde egin ahal izan zuen.

Gainerako arraintxo batzuk ezkutatu egin ziren algen atzean, beldurrak jota. Felixek handik ezin irtetea tamala zela esan zien, abenturak bizitzeko aukera galtzea zela; baina, arraintxo gorriak ez ziren ausartzen handik irteten.

Orduan Felixek ideia bat izan zuen: denak elkarren ondoan jarriko ziren, arrain bakar bat itxuratuz, eta bera, beltza zenez, begia izango zen. Era horretara, denak elkarrekin, ezkutalekua arrisku barik utzi ahal izan zuten eta sekula gehiago ez ziren beste arrain handi baten beldur izan.

LIONI, L: "Neda que neda" ipuinaren egokitzaipena. Lumen. 1982.

KONTAIDAZU...

NOLAKOA ZEN PROTAGONISTA?

NORI LAGUNDU ZION?

NOLA?

IRTENBIDE EGOKIA AURKITU AL ZUEN?

BURURATZEN ZAIZU BESTE IRTENBIDERIK?

GOGORATZEN DUZU JENDE ASKOREN ARTEAN KONPONDU BEHAR IZAN DEN ARAZORIK?



2. jarduera:

GIZARTEAN ESKU HARTZEN IKASTEN DUGU

IPUINA: "Aroztegiko batzarra"

Diotenez, behin batean batzar bitxi bat egin zen aroztegian. Tresnen arteko batzarra izan zen, beren arteko aldeak konpontzeko.

Mailuak egin zuen lehendakariarena, baina asanbladak jakinarazi zionez, uko egin beharra zuen. Zergatik? Zarata handiegia egiten zuen! Eta, gainera, jo eta ke aritzen zen denbora guztian.

Mailuak onartu zuen bere akatsa, baina torlojuak ere bere lekua utzi beharra zuela esan zuen. Ezer onik lortzeko buelta mordoa ematen ziola hark eta.

Erasoaren aurrean, torlojuak ere onartu zuen bere akatsa, baina honek ere lixa papera kanporatzeko eskatu zuen. Oso lehorra zela tratuan eta gainerakoekin marruskadura handia zuela.

Eta lixa papera konforme azaldu zen, betiere, metroa ere kaleratzen bazuten, zeren lixaren ustez, besteak neurtzen ematen baitzuen denbora, berak akats bat ere ez balu bezala.

Halako batean, arotza sartu zen, mantala jarri eta lanean hasi zen. Mailua, lixa papera, metroa eta torlojuak erabili zituen. Eta, azkenik, hasieran zur gozagaitz zena eraldatu eta altzari eder bihurtu zuen.

Aroztegia berriro ere hutsik geratu zenean, asanbladak berriro ekin zion erabakiak hartzeari. Orduantxe hitz egin zuen esku-zerrak, eta hauxe esan zuen:

"Jaun-andreak, argi geratu da denok ditugula akatsak, baina arotzak on duguna besterik ez darabil lan egiteko. Horrexek egiten gaitu baliagarri. Beraz, utz ditzagun alde batera gure akatsak eta pentsa dezagun, soilik, zertarako erabil genitzakeen gure ezaugarri onak."

Asanbladak, orduan, mailua indartsua zela ikusi zuen, torlojuak elkartu eta indarra ematen ziela, lixa papera lazdurak fintzeko eta leuntzeko aproposa zela eta metroa doitasun eta zehaztasun handiz aritzen zela.

Puntu horretara heldurik, elkarrekin batera kalitatezko altzariak egiteko gai zirela sentitu zuten. Harro beren ezaugarriez eta lankidetzan aritzeaz.

www.educarueca.org